

## MALENKONIA BATEN SUSTRAIAK

Pako Aristi

2006ko ekainean Argentinara joan ginen talde handi bat, ekimen instituzional baten partaide. Kirolari, kantari, politiko eta abarren artean, ni nintzen taldeko poeta eta idazlea, emanaldi batean testuak irakurriko zituena. Buenos Airesen emango genituen egun batzuk, eta besteak Rosarion. Ez zen, guztira, egonaldi luzea, baina hasiera batean bidaia folklorikotzat neukan hura erabakiorra bilakatuko zen nire bizitzan, edo bizitzari buruz daukadan nire ikuspegian.

Buenos Airesera iritsi eta neure baitan zerbait mugitzen hasi zen. Urteak dira, kanpora begira bizitzetik neure barrura begira bizitzen hasi nintzela; ez, noski, neure zilborraren mirespen etengabea, alderantziz baizik, gizartean zeukan bere presentzia publikoak puztutako egoa baztertuz, benetan ni nor edo zer ote nintzen peskizan, gorputzak bidaltzen dizkidan seinaleak deszifratu nahian, eta gogoak erakusten dizkidan sentimenei adi.

Buenos Airesek sortu zidan sentsazioa etxean egotearena izan zen: kaleetako giroa, hiriaren antolakuntza, jendearen adeitasuna... Aurkitu nituen leku arrotz batean ongi sentiarazten gaituzten (eta bakoitzak hain bereak dituen) zertzelada horiek, liburudenda ugari, kafetegi ederrak, tangoaren poesiari buruzko liburu interesgarriak, musika-dendak, jendearen laguntzeko gogoia zerbait galdetzen zenienean. Baina guztiaren gainetik sentipen bat nagusitu zitzaidan: 'Deja vú' deitzen den hori. Lehen aldia nuen Buenos Airesen, baina barruan zerbaitek 'ni hemen egona naiz' xuxurlatzen zidan etengabe.

Geroztik irakurri ditut kasu harrigarriak, lehen aldiz hiri bat bisitatu eta lekuak non zeuden bazekitenen istorioak, edo 'kale honen bueltan dago antzokia, eta haruntzago jatetxe bat' esan eta asmatzen zutenenak. Nirea ez zen hainbestera iritsi; edo bai. Irakurleak epaitu beza.

Buenos Airestik Rosariora joan behar genuen, eta nik ez nuen batere gogorik. Gustura nengoen, neure saltsan, bigarren egunerako bertako sentituz.

Baina joan ginen. Rosarion gidari edo laguntzaile bat ipini ziguten, Laura izeneko neska eder bat, euskal jatorrikoa. Oso altua zen, hanka luzeduna, ondo egina. Autobusean sartu zenean, bere gona labur harekin, niri kostatzen zitzaidan paisaiari begiratzea eta deskribatzen zizkigun eraikuntza historikoak mirestea. Gau hartan bertan amets egin nuen: ohean zegoen etzanda Laura, biluzik, eta ni gorputz luze eta amaigabe hura musukatzen ari nintzen, patxadan, gozatuz, gozaraziz.

Handik bi egunera eskani genuen emanaldia Mikel Markez, Lope eta hirurok Rosarioko Euskal Etxean. Eta gau

haren amaiera aldera bere etxera gonbidatu ninduen Laurak. Eta hitza haragi bihurtu zen; nire ametsa hezur-mamitu egin zen. Nik amestu nuen bezalaxe. Lekukoa eta guzti daukat: bi egun lehenago ametsa kontatu bainion Mikel Markezi.

Neska hark, ordea, deseoa eta grina baino gehiago sortarazi zidan bera babesteko sentipen-moduko bat; galduta zegoen ume bat ikusi nuen haren begiradan, eta nik 'gizon' izan nahi nuen harentzat. 'Alkoholak sortzen dituen sentipen estrainoak', pentsatu nuen neurekiko.

Itzuli ginen Buenos Airesera. Igandea zen. Euri-jasa ikaragarriak botatzen ari zen. Eta nik taldetik aldendu beharra sentitu nuen. Bakarrik egon nahi nuen. Galdu nintzen hotel inguruko kaleetan. Baina aterkinik gabe, busti nintzen apur bat. Kafetegi dotore batera egin nuen korrika, eta bustita sartu nintzen, destenplearekin. Zerbitzariak adeitsu eman zidan ongietorria, ea zerbait beroa nahi nuen eta holakoak esanez.

Han hasi nintzen ni errege bat bezala sentitzen. Dena zen gozoa une hartan. Kafetegi barrutik abenida zabal bat ikusten nuen. Haizea arbolak astintzen. Euri zaparradetatik ihesi jendea. Kale hutsak. Desanparatuak. Baina ni ondo, barruan, lehor, epel... Eta une hartantxe idatzi nuen poema, izenburutik hasita: BUENOS AIRESKO EURIA.

Ni han bizia nintzela sentitu nuen, aurreko bizitzaren batean. Baina oso gaizki pasatu nuela esaten zidan barruko ahotsak, mintzoak. Gaurko bizitzan izaten ditudan desanparo eta bakardade aldi gogorren sustraia han zegoela, Buenos Airesen, han igaro nuen bizitzan. Eta egungo bizitzan jaso ditudan laguntza eta fabore askoren indar karmikoa ere han zegoela, Buenos Airesen egin nituen gauzetan. Buenos Aires opari bat eskaintzen ari zitzaidala sentitu nuen. Eta bizitza osoan eduki dudan deserrotze sentipena, zortzi abizen euskaldunak ditudan arren, trenean ibiltzeari diodan gustua nire aurreko bizitza alderraiaren emaitza dela uste dut.

Txanpaina ere aipatzen dut poeman; izan ere, gauean kafetegi horrexera joan ginen lagun batzuk, txanpain botila bat edatera.

Idatzi nuen poema, baina arazo tekniko bat neukan: bertan Buenos Airesko kale bat aipatzen da. Mapa zabaldu nuen. Hiria izugarria da, hamabi milioitik gora bizi dira bertan. Han egongo dira 8.000 kale gutxienez. Emigrante baten historia kontatzen nuenez, portu inguruko kaleak begiratu nituen, eta bat aukeratu nuen, besterik gabe; berdin zitzaidan zein: Caferatta kalea.

Itzuli ginen Euskal Herria, eta ondorengo egunetan malenkoniaz beteta egon nintzen. Ez neukan motiborik; ez nintzen Lauraz maitemindu. Baina tristurak iraun egiten zidan.

Hiruzpalau astera posta elektronikoz bidali nion poema Laurari, eta berehala erantzun zidan: 'Está bueno el poema,

pero hay un error. La calle que mencionas no es Caferatta. Se escribe Cafferata, con dos ´f´s, no con dos ´t´s. Te lo digo porque yo he vivido ahí hasta hace un año´.

Oheratu ginen gauean ez genuen horretaz hitz egin, ziur dakit hori. Nor zen Laura, nire alaba? Biloba? Portu arrotz hartan eduki nuen lehen amodioa?

## BUENOS AIRESKO EURIA

Buenos Airesko euriak  
 abenida zabaletako arbolak inarrosten ditu,  
 eta horrekin batera  
 nire haurtzaroa ere astindu egiten du  
 Buenos Airesko euriak.

Ni ume moko bat izan naizelako  
 Cafferata kalean,  
 untzi batetik jaitsi nintzen  
 portu ezezagun hits hartan,  
 eta amaren magaletik  
 mundu epelago baten besoetara  
 nindoala esan zidan  
 Buenos Airesko euriak.

Kale hauetan zabuka ibilia naiz  
 izkinetako lurrunetan desagertzen ziren  
 amodioen atzetik,  
 Puerto Maderoko moiletan  
 izerdia isuri dut,  
 trenetan ihesi joan naiz  
 maitale jeloskorren labanetatik,  
 baina beti lasaitu izan nau  
 Buenos Airesko euriak.

Hemen hil nintzen,  
 kafetegi dotoreetako argien  
 distiratik urrun,  
 ez zen tangorik izan nire omenez,  
 ezta toparik ere nire arimaren alde.  
 Baina ez nintzen gustura hil,  
 eta itzuli beharra neukan:  
 zorion izpi baten zorra zeukan nirekin  
 Buenos Airesko euriak.

Eta gaur, kafetegi honen epelean,  
 tangoak entzunez  
 eta aspaldiko gizagaixo haren omenez  
 txanpain kopa altxatuz  
 bihotz-muineraino iritsi zaidan  
 gozamen lako zirrara batekin  
 ordaindu dit zorra  
 Buenos Airesko euriak.